

Trikitia
Txapelketa
behar al du?

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Serantes mendia,
Abrako gailurra

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Irak

pantaila handian lehertu da

2008ko Oscar sariak George Bushen agintaldiaren azken hilabeteetan iritsi dira. Datorren astean banatuko dituzte zinemaren sari preziatuenak. Hollywood ez da AEBen azken urteetako kanpo politikarekin kritikoegi azaldu eta gutxi dira Irak eta Afganistango inbasioei buruz diharduten pelikulak aurtengo Akademiaren sarien hautagaien artean. Dokumentalen atalari bestelako usaina dario ordea, odolarena. Bost filmetatik hiru inbasio horietaz ari dira. Ez dira salbuespena. Gai bera lantzen duten ekoizpen asko iritsi dira azken urtean aretoetara. Burua lur azpitik ateratzeko ordua zinemarentzat?

Nick Broomfieldek errealismo handiz kontatu du Irakeko gatazka *Battle for Haditha* filman.





Aktore onenaren Oscar saria irabaz dezake Tommy Lee Jonesek *In the valley of Elah* pelikulan egin duen lanarengatik.

Gerrak zeluloidea inbaditu du

GORKA BEREZIARTUA

AITAREN BEGIAN SARTU du atzamarra Charles Fergusonek *No end in sight* filman eta dokumental alorreko Oscar saria irabazteko izendatu dute. 2003an AEBetako soldaduak Iraken indarrez sartu zirenetik egin diren “akatsak” dira dokumentalaren abiapuntua. Filmaren norabidea elkarrizketatutako 35 pertsonen zehaztu dute: Bushen ingurukoak izandakoak gehienak, Iraketik ateratzearen alde daude orain. Lehiakide izango dituen bi film bere lehengusuak dira: AEBetako soldaduek Afganistanen egindako torturek eman diote Alex Gibneyeri *Taxi to the dark side* pelikula osatzeko testuingurua, eta Richard E. Robbinsen *Operation Homecoming: Writing the wartime experience* dokumentala soldadu iparamerikarrek idatzitako testuetan oinarrituta dago. Otsailaren 24ko Oscar gauean Tommy Lee Jonesek aktore onenaren saria irabaz dezake gainera, Irakeko izugarrikeria salatzen duen *In the valley of Elah* fikziozko filmarengatik.

Ale batzuk baino ez dira, zinema aretoak azken aldian gai bera landu duten filmez mukuru daude. Urrezko gizontxoak eskuratuko ez badute ere, ez dira saririk gabe geratu: Brian de Palmak zuzendari onenaren zilarrezko lehoia irabazi zuen Veneziako Mostran *Redacted* filmarengatik; Nick Broomfieldek *Battle for Haditha*-ri esker Donostiako Zinemaldiko zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen. Isilxeago pasa dira James Strousen *Grace is gone* eta Robert Redforden *Lions for lambs* –Redford bera, Tom Cruise eta Meril Streep protagonista izanda zarata handiagoa ateratzea pentsatzekoa bazen ere—. Irak, Afganistan, AEBen kanpo politika ezbaian jartzen ari dira zuzendari eta aktore batzuk, Bushen agintaldiaren udazkenean. Arrautza ala oiloa zen lehenago? Kultur industria estatubatuarrak politikan eragiteko asmoa du, ala herritarrek gerraren aurka hartu duten jarreraren ispilu da?

Bietako edozein auke-
rak balio du, egia esan.
Omeleta prestatua dago
eta zer zapore duen jaki-
teko ordua da. Jaialdian
jasotako sariak eta presti-
gioa bazter batean utzita,
gerraren aurkako film
luzeen uholde berri
honek ez du gizartean
eragin handirik izan. Bes-
telako arte diziplinek ere
ez, pentsatuko du norbai-
tek arrazoiz. Vietnamen
aurkako erasoak AEBetan
sortu zuen bazterke-
tak kultur mitologia
berriaren jaiotza ekarri
zuen. Hori ez da errepi-
katu —oraingo, inoiz ez
da jakiten noiz—. Garaiak
ere aldatu dira, esango du
beste norbaitek, eta film
bat tanta txikia baino ezin
dela izan ikus-entzuleek
egunero jasotzen duten
irudi zaparradaren erdian.



Brian de Palmaren
Redacted filmako
eszena bat.

Zuzendari berriek bestelako problemak ere
badituzte ordea. Honakoa batez ere: gerraren
aurka arituta, nola gaudituz Vietnamgoa salatze-
ko egin diren maisulanak. Edozein zinema zale-
ren gogoan dago Francis Ford Coppolaren esku
trebez gidatutako *Apocalypse Now* (1979), eta
Marlon Brandoren pertsonaiak giza psikologia-
ren alde ilunenean murgilduta egin zuen baka-
rriketa —“Izua eta terrore moralak zure lagunak
dira” esanez—. Edo Stanley Kubricken *Full metal
jacket* (1987) filman pertsona arruntek hiltzeko
makina bihurtu arte egiten duten bidaia. Gerra
oinarri hartuta, gogoeta askoz sakonagoetarako
bidea zabaldu zuten egile horiek
duela ez hainbeste; ez da lan erraza
izango bide beretik ekarpen interes-
garriak egitea.

Baliteke horregatik izatea. Fik-
zioan jeinuen pare ezin aritu, gaia
ezin landu gabe utzi eta dokumental
generora edo, fikziozkoak izan
arren, oso itxura errealista eta gor-
dina duten pelikulak egitera jo dute Irak eta
Afganistanera abiatu diren zuzendariak. *Battle for
Haditha* lasai asko izan zitekeen soldaduek euren
kamerarekin grabatutako sekuentzia sorta bat;
Brian de Palmak *Redacted* filmatzeko ezinbeste-
kotzat jo zuen aktoreen inprobisazioa, ikusleari
soldaduek galduta zebiltzala adierazteko.

Nola egin gerra gerrari?

“Hau ez da gerraren aurkako aktibistaz eta
Michael Moorek erraz ehizatzen moduko

Zineman, Bushen atzerri
politikaren aurka ari diren asko ez
dira zuzenean gerraren kontra ari,
gerra kudeatu den moduaren
kontra baizik

pertsonaz betetako dokumentala. Filmeko
jende gehiena garrantzitsua zen Bushen
administrazioarentzat” idatzi zuen *Chicago
Sun-Times* egunkariako kritikariak *No end in
sight* filmaz. Inbasioaren uniforme berdea
kendu eta bakearen alkandora zuria jantzi
dutenen adierazpenek sinesgarritasuna ematen
diote Fergusonen lanari, kritikariaren
ustetan. Gerraren aurkariak borroak bezala
mila aurpegi izan ditzakete, eta esanguratsua
da Bushen kanpo politikaren aurka ari diren
asko ez direla ari gerraren kontra, gerra
kudeatu den moduaren kontra baizik.
Horientzat akatsa ez da herrialde bat inbadi-
tzea, milaka pertsona hiltzea.

AEBetako bizilagunei gerrak
eragin dien tragedia kontatzera
mugatu dira zuzendari batzuk.
Grace is gone laneko protagonis-
tak barbarako, armadako sarjen-
tu zen emaztea galdu berri du,
eta ez daki bere bi alabei nola
azaldu. Hilerraren alde bakarra-
ri eskainitako filma da. *Lions for lambs*-en titu-
lua ere esanguratsua da. AEBetako solda-
duak “ardiek gidatutako lehoiak” direla
ematen du aditzera, eta ikuspuntu horretatik
kritikatzen ditu Afganistango operazio mili-
tarrak.

Kontrakoa egin du Paul Haggisek *In the
valley of Elab*-n. Tommy Lee Jonesek antzeztu-
tako pertsonaiari semea hil egingo zaio gerra-
tik itzuli ondoren. Heriotza ikertzen hasi eta
konturatuko da berarekin Iraken egondako

Interneten zineman baino errealago



Kamerak leiho bat erakusten du. Tiro bat, kristalak metal astunaren kolpea jaso du, baina eutsi dio, ez da apurtu. Norbaitek "kaka zaharra!" oihukatu du ingelesez. Gero, erdi barrez "hau da salbatu gaituen leihoa!" esan du. *Sniper shot Iraq* du izena bideoak eta 15 segundu irauten

du. Azken urteetan sarritan aipatu dute hedabideek AEBetako soldaduek gerran grabatutako ehunka bideo daudela Interneteko YouTube atarian. Ez da horrelakoak aurki daitezkeen webgune bakarra. LiveLeak.com ere horrelako edukiz beteta dago, askoz gogorragoak baina. Inoiz baino egile gehiago ari dira agertzen *snuff* generoan –izen hori dute denbora-pasako film modura grabatutako benetako hilketen filmek–.

The war tapes blogean dago antzeko beste erakusgarri bat. 2004 eta 2005ean Iraken izan ziren hiru soldaduk grabatutako irudiekin 97 minutuko pelikula osatu dute. Deborah Scranton zuzendaria arduratu da grabaketak antolatzeaz, baina irudi guztiak soldaduek hartutakoak dira. Ziurrenik inoiz ez da gerra baten fronteko hainbeste irudi egon mundu guztiaren eskura. Zinema-gileek euren lanei egjantzekotasuna emateko ezinbesteko bihurtu dira sekuentzia horiek.

soldaduek hil dutela; semeak gerran zegoenean egindako izugarrikerien berri ere izango du ordea. Kritika gobernuaren jarreratik harago, soldadu joandakoei ere zuzendu die. Antzerako zerbait egin du Alex Gibneyk: Afganistanen desagertu zen Dilawar izeneko taxilari baten historia berreraiki du *Taxi to the dark side* dokumentalean. Soldadu estatubatuarrek hil arte torturatu zuten.

Bi mutur horien artean geratu da Nick Broomfield. Irakeko soldadu beterranoak erabili ditu bere filman, batzuk Fallujah-ko batailan egondakoak. Soldadu amerikarrek zibilei egindako basakeriek filmaren tarte luzea betetzen badute ere, amaieran George Bushi botatzen dio gertatutako enerru guztia, "koman-dante-burua" bera dela esanez.

Ikuspuntuak ikuspuntu, oinarria aldatu egin da behintzat. Etxekoen larruan ala kanpokoe-nean izan, zinemak baztertu egin du gerran bihotz oneko ekintzak egin daitezkeenaren ideia. Konparazio batera, alde nabarmena dago 1991ko Golkoko Gerran girotutako *Three kings* (1999) eta azken aldiaren estreinatu diren filmen artean.

Bestalde, *Charlie Wilson's war* (2007) filmak bide interesgarria zabaldu du, sutan dauden gatazkok testuinguru historikoan kokatzeko abiapuntua jarritz. Afganistango gaur egungo egoeraren sustraiak aztertu ditu Mike Nichols zuzendariak, Sobiet Batasunaren eta Afganistanen arteko gerran AEBek izan zuten jarrerarekin kritiko azalduz. Phillip Seymour Hoffmanek bigarren mailako aktore onenaren Oscar saria irabaz dezake ekoizpen horretan jokatu duen pertsonaiarengatik.



Hanna Makhmalbafen *Buda az sharm foru rikht* filmak Afganistango emakumeen egoera du hizpide.

Afganistan umeen begietatik

Hanna Makhmalbaf iraniarra da, 18 urte ditu eta bere filmak ikusita gutxi sinetsiko lukete. Azkeneko Donostiako Zinemaldian bere lehen film luzea aurkeztu zuen, *Buda az sharm foru rikht*. Bakhtay izeneko 6 urteko neska baten istorioa da: eskolara joan nahi du, baina ez diote uzten. Ume baten begirada xalo eta magikotik azaldu du Makhmalbafek Afganistanen emakumeak bizi duen egoera. Txanponaren beste alde da, fundamentalismo islamiarrari etxetik egindako kritika.

Hala ere ez espero Mendebaldearen apologiarik. Zinemaldira etorri zenean eskaini zuen elkarriketa batean, Makhmalbafek honakoa adierazi zuen, buruan zeraman zapiaz galdetu ziotenean: "Niretzat ez da hain garrantzitsua. Hemen ez daramazue zapirik buruan, baina ez dut boterean emakume asko ikusten. Hemen ere gizonen azpitik bizi dira emakumeak". Letra larriz idazteko moduko esaldia, Ekialdeari pater-nalismoz begiratzen diotenezat. ■